

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

• ZEIN DIRA BEHAR DITUZUEN BAZKIDE ETA HORNITZAILE NAGUSIAK ZUEN PROIEKTUAK FUNTZIONA DEZAN?

Gure proiektuan, informatikariak edukitzea ezin bestekoa da, gure proiektua aplikazio bat delako. Gure bazkideetako bat informatikaria da, beraz, berak diseinatu eta programatuko ditu web orria eta aplikazioa. Hortaz aparte, hainbat administratzaile eta marketing-ean jardungo duten bazkideak edukiko ditugu, aplikazioa ondo kudeatzeko eta aplikazioa merkatura zabaltzeko.

Gainera, bezeroen presentzia oso garrantzitsua da aplikazioa aktibo egoteko eta proiektua aurrera eramateko. Beraien partaidetza ezinbestekoa izango da enpresa aurrera eramateko, azken finean, haiek izango direlako saltzaileak zein erosleak. Gure enpresa plataforma bat izango da non beraien arteko kontaktua baliatuko eta erraztuko dugun, bitartekari funtzioa betetzen. Bezeroak izango dira produktuen salerosketak egingo dituztenak eta hauen aktibitatea murriztu edo maila batera ez bada iristen enpresaren eraginkortasuna edo errendimendua ez da onuragarria izango, haiek baitira enpresaren pilare garrantzitsuena.

Bezero hauek espezifikokoak dira, hots, unibertsitate edo ikasketa bat egin behar dutenak hain zuzenki.

• ZERGATIK DIRA GARRANTZITSUAK GURETZAKO?

Azkenean, gure bazkideek lagunduko dute gure proiektua aurrera eramaten, nahiz eta gure esperientzia urria izan. Guk ez dakigu zehazki nola kudeatu edo nola eraman enpresa bat, gure lehenengo aldia da eta. Baina gure bazkideak beraien lana egingo balute, sinergia egongo litzake eta horrek etorkizunean lagunduko digu enpresak arrakasta lortzeko, baita gure aplikazioak ere.

Gainera, bazkideen artean itun edo kontratu bat sinatuko dugu, eta horrekin enpresaren egonkortasuna lor dezakegu. Bazkideek harreman onak baldin badute, aplikazioaren ekoizpen prozesua erraztuko lukete, baita merkaturatze prozesua ere.